

## **2001eko OTSAILAREN 27ko URJENTZIZKO BILKURA**

Lizartzan, bi mila eta bateko otsailaren hogeita zazpian, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ana Ederra Irurzun, Antton Balerdi Garmendia, Nerea Altuna Zubeldia, Lurdes Altuna Arritegi, Lontxo Goikoetxeaundia Martinez, Xabier Balerdi Urdampilleta; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Urjentzizko Bilkuran bildu dira, gai hau tratatu delarik:

### **1.- URJENTZIAREN ARRAZOIA**

Euskal Herritarrok Zinegotzi Taldeak, Premiazko Osoko Udal Batzarra egiteko eskaria luzatu du, ESPAINIAKO ENTZUTEGI NAZIONALAREN AGINDUZ, GENDARMERIA, ERTZAINZA eta GUARDIA ZIBILAREN ESKUTIK IZAN BERRI DIREN HAMAIRU ATXILOKETEN AURREAN mozioa aurkeztuaz.

Gure gizartean gai honek sortzen duen kezka eta duen garrantziagatik, bilkura honetan urjentziz tratatzea proposatu du, Alkateak.

Proposamena aho batez onartua izan da.

### **2.- ESPAINIAKO ENTZUTEGI NAZIONALAREN AGINDUZ, GENDARMERIA, ERTZAINZA eta GUARDIA ZIBILAREN ESKUTIZ IZAN BERRI DIREN HAMAIRU ATXILOKETEN AURREAN, EUSKAL HERRITARROK ZINEGOTZI TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA**

Udal honek, Espainiako Entzutegi Nazionalaren aginduz, Gendarmeria, Ertzaintza eta Guardia Zibilaren eskutik izan berri diren hamairu atxiloketen aurrean, honako erabaki hauek hartzea proposatu da:

- 1.- Xabier Gartzia Gaztelu, Estefan Robidart, Iñigo Guridi, Miren Okaritz, Eñaut Lerma, Edurne Velasco, Nerea Goikoetxea, Ixone Aizpurua, Oihane Beristain,

Pello Goikoetxea, Juan Manuel Zubillaga, Olatz Galarraga eta Aitor Garmendia euskal hiritarrak baldintzarik gabe aske uzteko exijitzen du Udal honek.

- 2.- Udal hau, erabat kezkatuta agertzen da, Gendarmeria, Guardia Zibila eta Ertzaintzaren eskuetan inkomunikaturik, hamairu Euskal hiritar hauek jasan dezaketen tratu eta indefentsio egoeragatik. Lege Antiterroristaren aplikazioak, giza eskubideen urraketa (inkomunikazioa, tortura, mehatxuak), bait dakartza berekin beti. Udal honek, atxilotuen egoeraren jarraipen zehatza egiteko konpromezua hartzen du.
- 3.- Operazio polizial honen atzean, interes eta erabaki politikoak daude argi eta garbi. Udal honek dio, Gendarmeria, Ertzaintza eta Guardia Zibilaren arduradun politikoek, gisa honetako operazioen bidez, herritarrengan izua sortzeaz gain, berriz ere argi azaltzen digute, frantziar eta espainiar estatuek Euskal Herriarekin bizi duten gatazkari irtenbide demokratikoa emateko borondaterik ez dutela eta bide polizial errepresiboen aldeko apustu garbia egiten dutela.
- 4.- Udal honek, irtenbide bakarra, Euskal Herriari zor zaizkion hitza eta erabakiaren aldeko lanean guztiok tinko pausuak ematean datzala aldarrikatzen du. Irtenbide demokratiko honi oztupoak jartzean ari direnei aurre eginaz.
- 5.- Udal honek, aurreko larunbatean Lizartzan izandako miaketak salatu eta, atxiloketa hauen aurrean protesta egiteko konbokatzen diren mobilizazioetan parte hartzeko deia egiten die herritar guztiei, bide errepresiboa gainditu eta behingoz Euskal Herria benetako demokrazia bidean jarriko duen marko berria eraikitzeko.

Euskal Herritarrok Zinegotzi Taldeak, Espainiako Entzutegi Nazionalaren aginduz, Gendarmeria, Ertzaintza eta Guardia Zibilaren eskutik izan berri diren hamairu atxiloketen aurrean aurkeztutako mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko bederatzi t'erdia direnean.